



Villabonan %41,9k erabiltzen du euskara

NEURKETA ▶ Soziolinguistika Klusterrak euskararen erabilerari buruzko datuak aurkeztu ditu

KEZKA ▶ Haurren euskararen erabilerak beheranzko joera eten duela nabarmendu du Udalak ▶ 7



Edurne Sudupe. N. URBIZU

EDURNE SUDUPE ▶ MARGOLARIA

«Margotzen ari den ikasleari ezin zaio bere bidetik atera»

Tolosarrak Amezketan eta Altzon marrazketa irakasten du ▶ 5



N. GARZIA

Baserrietara doazen pistak, erabilgarri

ARESO ▶ Dagoeneko herrian ez dago asfaltatu gabeko pistarik duen baserririk; azkenak Pilipen-Borda, Iruñegi eta Belaku izan dira ▶ 4

LIZARTZA ▶

Etxeberriaren aurkako euroagindua astebete atzeratu dute

Beharrezkoak diren dokumentu ofizialak falta direla argudiatu dute ▶ 6



Konzentrazioa Pauen. HITZA

TOLOSA ▶

15.000 euro bildu ditu Laskorainek Merkatu Txikian

Sahara eta Ekuador laguntzeko bideratuko dute bildu duten dirua ▶ 3

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Inauteriak prestatzen hasteko ordua

Karroza eta konpartsen lehiaketan izena emateko epea ireki dute jada

ESTI EZEIZA

Ireki dute jada Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan izena emateko epea. Edonork edo edozein taldek har dezake parte, adina eta nazionalitatea edozein izanik.

Karrozen kasuan, gutxieneko neurria, 2,5 metro zabal, 7 mero luze eta bateko altuera-koa izango da plataforma. Derrigorrez ibilgailu baten gainean egin edo atoi eramana izan beharko du, soinu ekipoa eta su itzalgailu eraman beharko ditu, emanaldi bat eskaini beharko dute eta bost urtetik gorako bost partaide izan beharko ditu gutxienez.

Konpartxei dagokionean, ez dago gutxieneko neurririk, ez eta derrigorrezko baldintzarik ere. Hauek lau taldetan banatuko dira: 25 lagun baino gehiagokoak; 13 eta 25 pertsona bitartekoak; 6 eta 12 bitartekoak; eta azkenik, 1 eta bost artekoak.

Izen-ematea udaletxean egin behar da otsailaren 2ra arte, eguerdiko ordubata baino lehen. Horretarako, interesatuek izen-emate orria bete beharko

dute. Hala, hau ematean, zenbaki bat jasoko dute parte-hartzaileek. Bestalde, zenbaki hori, emanaldian, bistan izan beharko dute.

Epaimahaikideak Tolosako Udalak eta Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketako ohiko parte-hartzaileek ondezkariek adostuta osatuko dira. Zazpi kidek osatuko dute epaimahaia: festa batzordeko lehendakariak, Tolosako Udalen ordezkaririk batek eta Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketako ohiko parte-hartzaileen bost ordezkarik.

Epaia otsailaren 23an, 19:30ean emango da jakitera, udaletxean gauzatuko den ekitaldian. Sariei dagokionean, irabazle bakoitzak txapela bat jasoko du. Hauek otsailaren 23ko ekitaldian banatuko dira. Karrozetan batek irabaziko du eta konpartsetan, sail bakoitzeko beste batek. Bestetik, ez da sarituko lehiaketan izenik eman ez duen karroza edo konpartsarik.

Antolatzaileek azaldu dutenaren arabera, debekatua dago konpartsa edo karrozen publikitate egitea. Arratsalde-



Joan den urteko irabazleak Udal ordezkariekin batera. N. LATABURU



Dagoeneko ari dira aurtengo Inauterietako gauzak prestatzen. E. EZEIZA

ZENBAIT DATU ▶

Izena emateko epea.

Otsailaren 2ra arte.

Tokia. Udaletxea.

Eraman beharrekoa.

Izen-emate orria beteta.

Izena emateko baldintzak.

Edonork edo edozeinek har

dezake parte.

Epaia. Otsailaren 23an

emango dira jakitera

irabazleen izenak.

tako zezen ikuskizunaren ondoko ohiko kalejirari traba ez egitearren, karrozek eta konpartsa plataformadun guztiek zezen-plazaren inguruan geratu beharko dute, kalejiran parte hartzen duten txaranga guztiak pasa arte. Baldin eta 17:30ak baino lehen erdi aldeira ez badira abiatu. Azkenik, parte-hartzaileek eskainitako emanaldi guztiek 01:00etarako amaitu beharko dute.

Diru laguntzak

Tolosako Udalak diru laguntzak emango dizkie lehiaketan parte hartzen duten guztiei. Kopuruak partaideen datuak eta argazkiak ikusita, modalitatearen eta taldearen arabera zehaztuko dituzte.

Diru laguntzak jaso ahal izateko, parte-hartzaileek zenbait gauza eta datu aurkeztu beharko dituzte. Alde batetik, izen-ematearen datu orria beteta, eta bestetik, datu orriaren atzealdian itsatsita, karroza edo konpartsa argazki bat. Argazkiak eta datuak aurkezteko epea martxoaren 2an bukatzen da, eguerdiko ordubatean.

VILLABONA ▶ KIROLAK

Bidarrari-Ainhoa arteko ibilaldia antolatu du Aizkardik iganderako

la zazpi orduko txangoa egingo dute, 21 kilometro zeharkatuz

E. EZEIZA

Aizkardi Mendi Elkartek txango berri bat antolatu du mendizaleentzako. Igande honetan izango da, eta Bidarroitik Ainhoa arteko ibilbidea egingo dute parte-hartzaileek.

Ibilbidea ondorengoak izango da, Bidarraitik abiatu eta Artzamendirara igoko dira. Hau 926 metrotara dago, ondoren 718ra kokatuta dagoen Mehatzeko lepora jaitsiko dira. Hemendik aurrera, oraindik ere beharuntza jarraituz, Zuharteko lepora

joango dira. Segidan, aldapan gora eginaz, berriro, 617 metroko alturan kokatuta dagoen Atxulegira igoko dira. Hemendik, GR-10aren seinaleak jarraituz Erebara zuzenduko dira. Azkenik, Ainhoa herrian amaituko dute bidaia.

Ibilaldiaren gutxi gora behar iraupena sei ordu eta berrogeita hamar minututakoa da, eta dena 21 kilometro egingo dituzte.


Txangoan parte hartu nahi dutenek 943 69 44 58 telefono zenbakira deituz eman ahal



Artzamendiko 926 metroko altueran kokatzen da. HITZA

izango dute izena. Edo bestela, Aizkardi Mendi Elkartean egoitza bertan egin ahal izango dute. Interesatuek izena

emateko azken aukera egunean bertan izango dute, 07:00ak baino lehen, Olaederra kiroldegian.



Anoetako Udala
IRAGARKIA

ANOETAKO "ALKARTASUNA" JUBILATU EGOITZAKO TABERNA-JANGELAREN USTIATZEA

Anoetako "Alkartasuna" jubilatuko taberna-jangelaren ustiatzean interesa duen pertsona oro harremanetan jar dadila ondorengo 30 egunetan Anoetako Udalararekin 943651200 telefonora hots eginez.

KULTURA ▶

Koldobika Jauregiren hitzaldia, gaur

Merkatariek ingelesaren hastapenak ikasteko doako ikastaroa antolatu dute. Astearteetan eta ostegunetan izango da Tolosako Kultur Etxean, 14:15etik 16:15era, eta Tolosa eta Ibarako Merkatariek elkarteontzat eta Gipuzkoako Merkatariek Federazioaren bazkideontzat irekia izango da. Izen emateko 943 42 55 57ra deitu behar da.

ZINEMA ▶

'El beso mortal' filma, bihar zine forumean

Biharko zine forum saioan, *El beso mortal* filma izango da ikusgai, Leidorren. 19:15ean izango da lehen saioa eta 21:45ean bigarrena.

GIZARTEA ▶

Tolosa CFren urteko batzarra bihar izango da

Tolosa CFk urteko batzarre-rako deia egiten du biharko, 19:30ean izango da lehenengo deialdia eta bigarrena, 20:00etan. Jorratuko dituzten gaiak, aurreko aktaren irakurketa eta onespina; kontuen egoera eta 2007ko aurrekontuak izango dira, besteak beste.

GIZARTEA ▶

Tolosa CFren urteko batzarra bihar izango da

Inauterietako larunbateko danborradan parte hartuko dutenei deia egiten zaie gaur, 20:00etan Kultur Etxean egingo den bilerara joateko.

GIZARTEA ▶

15.000 euro bildu dituzte Laskoraingo Merkatu Txikian

Ekuadortarrak eta sahararrak lagunduko dituzte aurten, Ikastolak antolatutako ekimen honekin lortutakoarekin



Pasa den urtean baino jende gehiago izan dela aurten azpimarratu dute antolatzaileek. IÑIGO TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Abenduaren 26tik urtarrilaren 7ra arte Laskorain ikastolak Ibarako Misio Taldea, Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarrekin eta Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin Gabonetako Merkatu Txikia antolatu du Sahararen eta Ekuadorren alde. Aurtengoan 15.000 euro batu dituzte egun horietan guztietan saldutakoarekin.

Laskorain Ikastolak aurten ere «erantzun bikaina» jaso duela nabarmendu du; «Merkatu Txikian salgai egon diren jantziak, jostailuak, tresnak eta abarrak ikastolako gurasoen, dendarien eta gainerako herritarren eskuzabaltasunari esker izan dira eta urtez urte ekimen honek jasotzen duen erantzuna azpimarragarria iruditzen zaigu; beraz, gure esker ona modu batean zein bestetan ekimen honetan parte

hartu duzuen guztioi», adierazi dute.

Bestalde, Laskorain Ikastolakoei «benetan pozgarria» iruditzen zaie Emaus Fundazioak, bazterketaren aurka burutzen duen proiektua, eta «Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarrekin eta Ibaratik Misio Taldeak dituzten asmoak ezagutzeko eta zabaltzeko antolatutako ekintzetan jaso dugun atxikimendua eta erantzun ona». Izan ere, ekimen horiei

esker, «ehunka gaztek, gurasok, familiak eta herritarrek, azken urte hauetan, ezagutu ahal izan dugu hainbat jende bizi duen gizarte bazterketa, bai urrutian eta ez oso urrutian gugandik gertu baizik. Aldi berean egoera horiek leuntzeko eskura dugun aukera eta herritarren artean zabaldu nahi dugun konpromisoa ezagutzera eman dugu». Hala, ziur daudela diote, ekimen «xume» horien bidez gizarte solidarioagoaren alde ari direla eta jarraipena izan dezan merezi duela. Kanpaina amaitu den arren, egitekoak egunerokotasunean dirauela gehitzen dute Laskorain Ikastolakoei.

Parte-hartze zabalda

Aurtengo ekitaldiko parte hartzea «oso zabalda» izan da. Ondorengo datuak eman dituzte: guztira 150 dendarik hartu dute parte merkatutako materiala emanez; arduradun gisa, Merkatu Txikiak iraun duen hamahiru egunetan zehar, 67 guraso, irakasle eta ikasle ohi aritu dira eta laguntzen, berriz, DBH 3ko eta 4ko eta Batxilergo lehenengo eta bigarren mailako 140 ikasle.

Bestalde, «helburu nagusien ekonomikoa ez bazen ere, honek ere oso erantzun ona izan du», eta 15.000 euro baino gehiago lortu dituzte, laz baino 2.300 euro gehiago. Diru hau eta saldu gabe gelditu zen gutxia Emaus Fundazioaren, Ibaratik Misio Taldearen eta Tolosaldea Sahararekin elkarrekin esku geratu da, «hauek baztertuakin orain arteko lana eginez jarrai dezaten».

Sahararako janari bilteta

Laskorain Ikastolan beste ekimen bat jarri dute abian aste honetan bertan, Sahararen aldeko janari biltetan parte hartzea, alegia. Hilaren 26ra arte egingo dute bilteta *Ikasle bat, gutxienez kilo bat* lelopean. Tolosaldean 7.000 kilo elikagai biltzeko asmoa dute, eta Ikastolan, berriz, 1.000 kilo lortu nahi dituzte denen artean.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

ARESO ▶ AZPIEGITURAK

Azken pistak asfaltatu dituzte jada

Lan hauen ostean ez dago asfaltatu gabeko pistarik duen baserririk Areson

NAIARA GARZIA

Areson dagoeneko ez dago asfaltatu gabeko pistarik ez duen eta jendea bizi den baserririk. Hiru ziren herrian oraindik egoera horretan zeuden baserriak: Pilipen-borda, Iruñegi eta Belaku. Herenegun amaitu zituzten asfaltatze lanak 118.000 eurotako aurrekontua izan du, eta kopuru honetatik, Udalak 70.000 eurotako diru laguntza jaso du.

Iruñegi baserrira doan pista izan zen asfaltatu zuten lehenengoa, joan den ostegunean. Ostiralean, berriz, Elutsedertik Pilipen-bordara doan zatia amaitu zuten. Lehenengo bi hauek ondoan daudenez (bata bestearen gainean), Belakukoa azkeneko utzi zuten, herria zeharkatu eta aurrera jarraituta baitago.

Belaku baserriko lanekin amaitu ondoren, dagoeneko ez da herrian baserri batetara doan eta asfaltatu gabe dagoen pistarik. Pilipen-bordako Trini Mirandak azaldu duen bezala, «25 urte pasa dira herrian lehenengo pistak asfaltatzen hasi zirenetik». Aresoko Udalak behin baino gehiagotan aurkeztu du proiektu hau Nafarroako Gobernuan, baina ez du inoiz diru laguntzarik jaso. Hau dela eta, azkenean proiektua beste era batetara aurkeztu eta beharrezkoa zen diru laguntza jaso du aurten.

Lanak amaitu ondoren, Iruñegiko baserriko Fermin Gomezek eta Josefa Onsalok urak eramateko errepede bazterreko hodiak direla-eta arazoak larriak izan dituztela adierazi dute. «Goiko urak eta mendia behera bota zituzten. Udaletxean parte eman nuen eta ez zidaten erantzunik eman. Eurria egiten zuenean ikusiko zutela zenbat ur eroriko zen, hori esan ziguten. Azkenean beharrezkoa zen hodia sartu dute», adierazi dute.

Urte asko eman dituzte Iruñegi baserrikoak pistaren zuloaren bat edo zegoenean hau konpontzen. «Lehen pista hau guk konpontzen genuen, eta ordaindu beharrekoak gure kontu ordaintzen genituen».

Fermin Gomez bera bide-egile izan da urte askotan, «Altzegitik Ibiurrera doan ubidea neronek egin nuen, bizilagun batzuen laguntzarekin. Orain, berriz, gauza hauek udaletxeko langile batek egiten ditu». Behin pistak asfaltatu dituztela «pozik» daude. «Eskertzekoa da. Herrian dagoeneko azkenekotarikoa ginen, Belaku eta Pilipen-bordarekin batera. Lehen zintzilik utzitakoa osatu du Udalak. Aurreko legealdian 2 etxe zituen multzotara egin zitekeen obra, eta orain hori aldatu egin da. Herrian ez da jendea bizi den baserririk asfaltatutako pista ez duenik», dio Josefa Onsalok. Honetaz gain, etxe ondoan dagoen beste hodi batekin arazo txiki bat izan dutela esan du Josefa Onsalok. «Duela 30 urte jarri genuen guk hodi hori eta urak nekez ematen ditu, hainbeste urteren ondoren. Hasiera batean ez zutela aldatuko esan ziguten, baina azkenean, baiezkoa eman ziguten».


Pilipen-borda eta Belaku

Goraxeago, berriz, Pilipen-bordan, Trini Miranda bizi da. «Oso garai txarrak pasatu ditugu, izotza zela eta, edo euriteengatik. Nik beti eskatu dut pisten egoera konpontzea, seme-alabengatik gehienbat, herrira jaitsi behar izaten baitzuten egunero, eskolara». Urteak pasa ahala gauzak hobetu egin direla ikusten du Trini Mirandak. «Borondate hobia ikusten diot Udalari. Orain, adibidez, etxerako bidean dagoen aldapa-gainaldeak beldurra ematen dit, gai arriskutsua iruditzen zait, eta zentzu honetan Udala jarrera egokiarekin ikusten dut, borondate onarekin».

Autobiaren garaiak ekarri ditu gogora Trini Mirandak. «Lanak irauin zuten artean hau zabortegia izan zen. Honen ordainez Nafarroako Aldundiarekin adostasun batetara iritsi ginen, eta pistaren zenbait zati asfaltatu zituzten. Orduan lortu genuena Diputazioarekin aurrez aurre hitz eginda izan zen, ez herriko Udalaren bitartez».



Pilipen-borda. Pilipen-bordara doan pista izan zen asfaltatu zuten bigarrena. «Oso garai barrak pasa ditugu, izotza zela eta, edo euriarengatik. Nik beti eskatu dut pisten egoera konpontzea, seme-alabengatik gehienbat», dio bertako Trini Mirandak. N. GARZIA.



Lehen. Iruñegi baserrira doan bideak urte asko egin ditu asfaltatu gabe. Duela gutxi arte eta urte askoan, baserriarrak ziren pistak konpondu eta mantentzen zituztenak. N. GARZIA



Orain. Ostegunean amaitu zuten Iruñegira baserrira doan pista. Hainbeste urteren ondoren asfaltatzeko bidea egin dute eta bizilagunak pozik gelditu dira emaitzarekin. N. GARZIA



Lanak. Asfaltatze lanak ez dira oso luzeak izan. Baserri bakoitzeko pistak egun berean hasi eta amaitu dituzte. Pista hauek oso luzeak ez diren arren, makinaria ugari jarri zuten marbxan metro horiek asfaltatzeko. Gauzak horrela, ostegun eta ostiralean, Elutseder ingurua kamioiez josia egon zen. N. GARZIA

EDURNE SUDUPE ▶ MARGOLARIA

«Ezin zaio margotzen ari denari bere bidetik atera»

Edurne Sudupe Amezketa eta Altzon ari da marrazketa klaseak ematen; ikasleez eta marrazteaz aritu da

NEREA URBIZU

Altzon bizi den tolosarra da Edurne Sudupe margolaria (Tolosa, 1964). Amezketa eskolako guraso elkarteak gaztetxoentzako margolaritza ikastaro bat antolatu zuen, eta lehengo astean izan zen lehenengo klasea Edurne Suduperekin; bi taldetan banatuta dauden 11 ikasleak, momentuz, «gustura» ari dira.

Nolatan hasi zinen marrazki eta margolaritza ikastaroak ematen?

Berez, Altzoko ludotekarako langile bat behar zuten. Nik arratsaldeetan bakarrik nuen posible, eta proposatu egin nien udaletxean. Margotzen ere banekiela esan nien eta horrela hasi nintzen. Ume batzuk hasi ziren ikasi nahian, eta aurten bigarren urtez ari naiz klaseak ematen. Amezketa, berriaz, Altzon irakasle eta Amezketa guraso elkarteko kide den batek proposatu zidan bertan ere klaseak emateko, eta animatu egin naiz. Beraz, klaseak ematen bi urte darraztat.

Altzon asko dira ikastera doazenak?

Hiru talde neuzkan ia. Aurten bi heldu ere hasi dira, aurrez zeuden beste 11 bat ikaslerekin batera. Lehengo urtean denon artean mural bat egin genuen, eta Altzoko udaletxearen atarian, sarrean dago jarrita. Amezketa 11 gaztetxo daude, bi taldetan banatuta.

Zer ikasiko dute gaztetxo hauek?

Nik oleoa, pastela, akuarela eta ikatz-ziria teknikak eskainiko dizkiet, eta bakoitzak gero aukeratu du nahi duena.

Hasteko denek zerbaitegin beharko dute...

Bai. Arkatz arruntekin hasten dira marrazten, gauzarik oinarrikoena gainera: formaz errazak diren gauzak marrazten hasten dira, kopiatu egin behar dute. Atzo adibidez, pintza bat

marratzu behar izan zuten. Aurterago argazkietatik hasiko dira kopiatzen.

Zer da gehien landu behar dutena?

Sormena izan daiteke. Bakoitza mundu bat da eta ume bakoitzak behar duena ikusten da marrazkien bidez. Argazkiak aukeratzeko dituztenean, adibidez. Telebistako marrazki bizidunak, paisaia lasaia... gauza ezberdin asko dauzkate aukeratzeko, eta bakoitzak nahi duena hartzen du.

Hori garrantzitsua da...

Bai, ia garrantzitsua da norbera nolako den; ezin zaio margotzen ari denari bere bidetik atera. Gure lana bera bide horretatik eramatea da, izan ere, bere bidetik ateratzen baduzu umea hil egiten duzu. Garrantzitsua da ere ikastera datorren hori behartuta ez ortotzea, kontrakoa. Oso irekia da margotzea, norbere burua oso ondo sentitzeko.

Eta nolako munduak dituzu klaseetan?

Bi urte bakarrik darraztat klaseak ematen, baina oso desberdinak... Perfezioa bilatzen dutenak, oso libreak direnak, beldur direnak... Marrazketarekin beldur hori uxatzen saiatu behar dugu baita ere; gordeta dagoena ateratzea, bloke hori desblokeatzea, alegia.

Zer da marraztea zuzetzat?

Pintatzea terapia da. Margolan bat polita izan daiteke edo ez, baina koadro guztiak politikak izatera iritsi aurretik hasten dira; margoa eta mihiseak hartu aurretik, hain zuzen. Marraztu aurretik lan bat dago: kolo-reak, gaia eta bestelakoak ondoren datoz. Tolosako Kultur Etxean behin bakarrik jaso ditut klaseak, Jose Luis Longaronekin, eta hain gustura egon nintzen! Askatasun handiarekin, eta nik jasotakoa txikiei irakatsi nahi diet.

Helburua zoin izan daiteke?

Nik hau bera nahi diet irakatsi:



Teknika ezberdinak. Edurne Sudupe Altzoko udaletxeko beheko solairuan erakusketak jarri zuen Eguberrian. Arkatzez eginda, horrelakoak egitera iritsi daitezke marrazketara doazen ikasleak. E.S.



Margoarekin erliebea irudikatzen. Erliebean dagoela badirudi ere, dena margotuta dago, maila berean guztia. EDURNE SUDUPE



Amezketa eta Altzon irakasle. Aurten hasi da Sudupe Amezketa. Irudian, Amezketa haur batzuekin. N. URBIZU

margotzea terapia bat dela, eta askatasunarekin datozela hona, obligaziorik gabe. Nahikoak badituzte bestela ere! Marraztearen une hori askatasun une bezala bizi behar dute, lasaialdi momentu bezala. Hurrengo pausoa sormena lantzearena izango litzateke, baina Amezketa kasuan, adibidez, hiru hilabetez bakarrik egongo naiz, eta ez dakit horretara iristeko denbora izango ote dugun.

ABALTZISKETA ▶

Uretako ordainagiritako erreklamazioak

Gipuzkoako Urak SAK 2006. urteko azken hiruhilabeteke saneamendu plana, saneamendu eta ur ordainagiriak bidali ditu Abaltzisketako etxeetara dagoeneko. Beasaingo Zazpiterrieta 1, baxura joanda, edo 902 30 22 22 telefono zenbakira deituz erreklamazioak egin daitezke. Hilaren 25a izango da honetarako azken eguna.

IKAZTEGIETA ▶

Santa Ageda bezperan abesteko bilera

Gaur Ikaztegieta kiroldegian 21:00etan bilera bat egingo dute urtero-urtero Santa Ageda bezperan kantatzen ateratzen diren emakume taldekoek. Bertan parte hartu nahi duenak kiroldegian azaldu daitezke, aurten urtero abesten dutenekin batera kantatu ahal izateko, alegia. Gaurko bileran entseguak eta otsailaren 4arekin loturiko guztiak zehaztuko dituzte.

ALEGIA ▶

Argazkigintzari lotutako ikastaroa

Alegiko kultur etxean argazkigintza ikastaroa antolatu dute Cebanc eta Udaleren artean. Ikastaroa ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazki-ukitua izango da. Aralar DBHko institutuan izango dira eskolak asteazkenero, 18:00etatik 20:30era bitarte, eta lehen eguna otsailaren 7a izango da. Maiatzaren 2ra arte izango den ikastaroa 30 euro balio du, orotara 30 ordukoa izanik. Izen-ematea hilaren 22tik 31ra Kultur Etxean izango da.

iragarki laburrak ▶

LANA	Tolosako taberna batean lan egiteko. Interesatuek deitu 615 78 90 06 telefono zenbakira.
Gidaria. Egurretan ibiltzeko gidaria behar da. 626 71 46 96.	
Banatzaillea. Baserriko produktuak banatzeko banatzaile bat behar da. 943 68 22 14.	
Elektrikaria. Elektrikari bat behar da Villabona inguruan, industrian lan egiteko. 629 53 40 50.	
Tabernaria. Pertsona bat behar da	
SALGAI	
Autoa. BMW M3a salgai. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro iburuarekin. 18ko lllantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. 943 65 41 43.	

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Etxeberriaren aurkako euroagindua atzeratu dute

Pauko Apelazio Auzitegiak datorren asteartera arte atzeratu du auzi saioa euroagindua burutzeko beharrezko diren dokumentu ofizialen faltagatik

ERREDAKZIOA

Joan den urtarrilaren 9an Azkainen atxiloturiko Garikoitz Etxeberria lizartzarra eta Aritz Larrinaga bilbotarraren aurkako euroaginduaren atzerketa atzeratu egin dute dokumentu ofizialen faltagatik eta datorren asteartean burutuko dela aurreikusi du Apelazio Auzitegiako lehendakariak.

Pauko Apelazio Auzitegiak atzo goizean aztertu behar zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak bideraturiko Garikoitz Etxeberria eta Asier Larrinagaren aurkako euroagindua Pauko epaiketa gelan. Hamar minutuko epaiketa laburren ondoren, ordea, Auzitegiako lehendakariak epaiketa datorren asteartera arte atzeratzea eskatu zuen. Atzerapenaren arrazoa euroaginduaren dokumentu ofizialak Paura iritsi ez izana zela azaldu zuen Auzitegiako lehendakariak.



100 lagun inguru elkartu ziren Pauko epaitegi kanpoan Etxeberria eta Larrinagari babesa emateko. HITZA

Etxeberria eta Larrinagaren abokatu diren Yolanda Molina eta Xantiana Cachenautek ez zuten jaso auzi saiorako beharrezkoa den dosierra, soilik euroaginduaren jakinarazpena

jaso baitzuten. Beraz, hurrengo asteartean erabakiko dute Azkainen atxiloturiko ustezko bi etakideak Espainiara estraditatu dituzten ala Frantzian geratuko diren. Auzi saio hau

Espainia eta Frantziako Auzitegien artean adosturiko prozedura da eta Espainiako estatutak Frantzian inputaturiko delituen jurisdikzioa onar dezake.

Nahiz eta atxilotuek ustez arma bat zeramaten, Frantziak ez ditu auzipetu, hartara lehenago utziko baititu Espainiaren esku. Hala, Espainiako Auzitegi Nazionalak «historikotzat» jo du Frantziaren erabakia inoiz ez baitu horrelako erabakirik hartu, armak eduki arren ez auzipetzea, hain zuzen ere. Ondorioz, delitu hori ere epaitzea Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku geratuko litzatekeen, baliteke Etxeberriak eta Larrinagak zigor handiagoa jasotzea.

Auzi saio laburrean, Auzitegiak ukatu egin du atxilotuak aske uzteko defentsak eginiko eskakizuna. Beraz, datorren asteartera bitarte behintzat, Tolosako (Frantzia) espetxean jarraituko dute preso lizartzar eta bilbotarrak.

Herritarren elkartasuna

Etxeberria eta Larrinaga atxilotu zituztenetik senitartekoen, adiskideen, herritarren edota ezagunen laguntza eta babesak ez du atsenden izan. Manifestazio eta kontzentrazioekin ekin zieten laguntzari. Axurdatario herri plataformaren babesa etorri zen ondoren. Azkena, berriz, atzo goizean goiz Lizartza-tik Pauko epaitegira auzi saiora joandako 100 senitartekoen eta adiskideen elkartasuna izan zen.

LOURDES ARITZITURRI ▶ GINEKOLOGOA

«Diagnostiko prebentiboa egin behar da minbizia lehenbailehen detektatzeko»

Autoesplorazioa eta mamografiak egitearen garrantzia azaldu du ginekologoak

MADDI SOROA

Donostiako Institutuko doktora da Lourdes Ariziturri (Donostia, 1954). A ditua da bularreko minbiziaren inguruan, Donostiako Onkologikoan egiten baitu lan. Gai honen inguruan mintzatzeko hitzaldia emango du gaur 15:30ean Ibarako Kultur Etxean, Katxalin Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen elkartearen eskutik.

Zein gai jorratuko dituzu gaurko hitzaldian?

Katxalin elkarteak antolatutako hitzaldia da eta hauek herriz herri hitzaldiak ematen dituzte helburu bakarrarekin, emakumeak kontsultetara joateko mentalizatzea, bularreko minbizia sahistu ahal izateko. Hi-

taldian gaixotasun honen inguruko informazioa zabaltzen da eta bideo bat ere erakusten da emakumeak bere bularrak nola esploratu eta kozkorrak aurkitzen jakiteko.

Mediku guztiek azpimarratzen dute oso garrantzitsua dela prebentzioa.

Bai, hala da, oso garrantzitsua da minbiziari aurre egitea. Horretarako bi aukera daude, batetik, norberak gaixotasun hori sahistea. Hori, ordea, bularreko minbiziarekin ezinezkoa da, ezin baita ekidin. Bigarren aukera, aurreikuspeneko diagnostiko egitea litzateke eta hori oso garrantzitsua da. Autoesplorazioaren bitartez eta kontsulten bitartez kozkorra lehenbailehen detektatzea ezinbestekoa baita.



DIARIO VASCO

Zein neurri hartu beharko litrateke prebentziorako?

Geroz eta gehiago dira bularreko minbizia duten emakumeak. Horregatik, esan beza, oso garrantzitsua da auto-

esplorazioa egitea. Emakume bakoitzak bere bularrak eza-gutu behar ditu eta kozkorrak detektatzen jakin behar du. Bestetik, kontsultetara joatea ezinbestekoa da azterketak

egiteko eta minbizia lehenbailehen detektatzeko. Emakumei mamografiatara joateko esaten zaienean, bertara joan behar dute.

Zein litrateke bularreko minbiziaren arrisku taldeak?

Edozein emakumek eduki dezake bularreko minbizia, baina aurrekariak dituzten emakumeek aukera gehiago izaten dituzte. Ama edo ahizpak bularreko minbizia izan duen emakumeak aukera bikoitza edo hirukoitza izaten dute. Horretaz gain, faktore asko hartzen dira aintzat, hala nola, lehen hilerokoa noiz izan den, haurdunaldiak, hormonak...

Sendatu daitekeen gaitza da?

Ia beti sendatu daiteke baina horretarako garaiz detektatu behar da. Behin detektatu ondoren, kasu guztietan kirurgia egiten da. Gero, tumorearen ezaugarrien arabera eta minbiziaren fasearen arabera tratamendu bat edo beste ezartzen da. Lehen, maspektomiaren bitartez bularra mozten zen, orain, ordea, tumorea kentzen da eta bularra mantendu egiten da. ◀

'18/98 AUZIA' ▶

Tortura salatu dute auzipetuek epaiketan

ERREDAKZIOA

Espainian torturatu egiten dela, eta 18/98 auziko zenbait auzipetu praktika horren biktima izan direla —tarlean Mikel Egibar zizurkildarra eta Nekane Txapartegi asteasuarra— salatu zuten atzo auzipetuek epaiketan. Hain zuzen ere, saioa hasi aurretik auzipetuetako hiruk —Jose Luis Elkorok, Jesus Mari Zala-kainek eta Teresa Todak— nazioarteko hainbat erakundek Espainian torturatzen dela agertuz egindako txostenak eman zizkieten epaimahaiko eta fiskaltzako kideei. Bitartean, auzipetu guztiak zutik jarri ziren, *Tortura-ri Stop* jartzen duten elastikoak jantzita zituztela.

Froga agirien irakurketa

Izan ere, Fiskaltzak eskatutako froga agirien irakurketa egiten ari dira egunotan. Horien artean daude Nekane Txapartegiren, Mikel Egibarren, Xabier Alegriaren eta Xabier Arregiaren deklarazioak, «torturapean eginda» salatu izan dutenean. Hain justu, froga agiri horien irakurketa egitearekin deklarazioei baliotasuna eman nahi zaiela eta beraz tortura legitimitzen dutela salatu nahi izan zuten auzipetuek.

Ez da lehenengo aldia 18/98 auzian torturaren salaketa egiten dena. Atzo ikusitako torturaren aurkako kamisetak ere ikusi ziren torturak jasan dituztela salatu dutenek deklarazioak egitean. Baita Fiskaltzak peritu bezala deituta, guardia zibilek eta Espainiako Poliziako kideek egindako deklarazioetan.

VILLABONA ▶ EUSKARA

Haurren euskararen erabilerak ez du jada beheranzko joera

Indize orokorra %41,9koa da, 2003an baino 2,4 gehiago

IMANOL GARCIA

Soziolinguistika Klusterrak Villabonako euskararen erabilerari buruzko datuak aurkeztu zituen herenegun arratsaldean, enpresako Larraitz Garmendiaren eskutik. 2006an egin zuten neurketa eta herriko erabileraren indizea %41,9 da. Orain hiru urte egindako neurketatik hona gora egin du erabilerak, 2,4 puntu zehazki. Epe horretan indizea «%40-42ren inguruan egonkortu dela dirudi», azaldu du Garmendiak. Hala ere, Udalarik kezka gehien sortzen zion datua haurren erabilera zen, azken urteetan beheranzko joera zuelako. Bada, joera hori eten egin da eta 2006ko datuen arabera indizea %58,9koa da, orain hiru urte baino 6 puntu gehiago. Kale neurketan jasotako erabilera erreala espero zitekeen erabilera (%37) baino altuagoa da, bost puntuko aldea, hain zuzen. Villabonako azokan ere neurketa egin zuten eta erabilera %19koa da, nabarmen baxuagoa herrian jaso dena baino.

Bilakaera

Bestalde, azken 15 urteko bilakaerari dagokionez, 1991 eta 1995 urteen artean %35aren azpitik ibili zen erabilera orokorra. 1995an %49a iritsi zen. 1996 eta 2001 urteen artean %40-46 bitartean izan zen neuritutako erabilera, 2001ean %50era iritsiz. Urte horretan eten egin zen goranzko joera eta 2003an %39raino jaitsi zen.



Larraitz Garmendia aurkezpenaren une batean. I. GARCIA

Aurretik aipatu bezala, azkeneko neurketan, 2006koan, 2,4 puntu igo da.

Adin-taldeka gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%66); haurren erabilera azpitik ageri da (%59). Gutxien, berriz, herriko batez bestekoaren azpitik, helduak eta adinekoak (%30-31). Normalean haurrek gazteek baino gehiago erabiltzen dute euskara, baina Villabonan bai 2003an bai 2006an gazteak dira euskara gehien erabiltzen duten adin-taldea.

Bilakaerari dagokionez, gazteen erabilera izan da behera egin duen bakarra. Haurren erabilerak, aurretik aipatu bezala, beheranzko joera eten eta gora egin du. Helduengan, aurreko 5 urteetako beheranzko joera eten eta erabilerak gora egin du. Adinekoak egonkorren mantendu dira, zertxobait gora eginez 2006an.

Sexuari dagokionez, gizonen erabilera emakumeen erabilera baino

euskara erabiltzeko joera handiagoa dute, baina aldea, bost puntukoa, «ez da esanguratsua», neurketaren egileek diotenez. 2003ko datuek joera bera erakusten dute. 2001ean, berriz, sexu ezberdinekoen artean alderik ez zegoen.

Haurrak, eragile

Haurren presentzia eragile garrantzitsua izan ohi da euskararen erabileran. Horrela, Villabonan, haurrak present izanik erabilera nabarmen igo-tzen da (18 puntu). Haurrak mintzakide direnean, hau da, elkarrizketan zuzenean parte hartzean, erabilerak nabarmen egiten du gora.

Taldearen osakeri erreparaturaz, adin-talde berekoen artean erabilera maila baxuagoa izan da, taldea adin-talde ezberdineko kideez osatua izatean baino. Hala ere, ez da alde esangurantsua, 2,3 puntukoa soilik.

VILLABONA ▶

Sei talde ari dira lehia IX. Areto Futbol Torneoan

I. GARCIA

Olaederra kiroldegiko IX. Areto Futbol Torneoa martxan da dagoeneko. Aurten sei taldek eman dute izena, beste urtetan baino gutxiagok. Pasatu den asteburuan jokatuta zuten lehenengo jardunaldia eta emaitza hauek lortu zituzten parte-hartzaileek: Karhe 5, Steava Bucuresti 10; No somos nadie 6, Egarri Taberna 1; Pub Ekaitz 9, Itzuli Taberna 4.

Liga bat egingo dute, talde guztien artean joan-etorriko partidak jokatuz. Saikatzaren diren lehenengo lau taldek finalerdiak jokatuko dituzte: lehenengoak hirugarrenaren aurka eta bigarrenak laugarrenaren aurka. Finalerdiak ere joan-etorrikoak izango dira. Finala maiztzen erdialdera jokatzea aurreikusten dute.

MUSIKA ▶

Txalaparta ikastaroa 12 urtetik gorakoentzat

ERREDAKZIOA

Loatzo musika eskolak txalaparta ikastaroa antolatuta du 12 urtetik aurrerakoentzat. Interesaturik daudenak matrikulazioa hilaren 22tik 26ra egin dezakete, 10:00etatik 16:00etara. Horretarako, Zuzurkilgo bulegora joan (Bulandegi bidea 23, behe) edo 943 69 26 19 zenbakira dei daiteke.

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
1. planta - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Telf. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Alegia. Eraikuntza berriko pabilioiak salgai. Azken moduluak. 350m2tik hasita.
Anoeta. 90 m2ko etxebizitza salgai, kanpora begira eta berritu beharrekoa.
Belauntza. Bifamiliarra, bi solairurekin eta 270 m2ko lursailarekin.
Belauntza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.
Berastegi. Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairu bakoitzeko.

Berastegi. Famili bakarreko etxea salgai, 4.000 m2ko lursailarekin batera.
Berrobi. Behe solairuko etxebizitza. 50 m2koa. 117.200 euro.
Irura. San Migel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.
Irura. Eraikuntza berriko bi apartamentu salgai garaje eta trasteroekin.
Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trastelekua duen etxebizitza.

Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.
Tolosa. Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. Hiru solairukoa.
Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.
Tolosa. San Frantziskon apartamentu altua salgai. Logela bakarra. Guztia eraberritua. Ikuspegi ederrak.
Tolosa. San Frantziskon etxebizitza

salgai. 90 m2koa, eraberritua, oso eguzkitsua.
Tolosa. Zabalaretan, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna.
Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, ordaintzeko erreztasunekin. 9.480 eurotik aurrera.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.
Tolosa. Maituna zaharra, 15 garaje berri eta itxiak, 30m2tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko. Eraikitzeko.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Anoeta. Dantza-sokaren entsegu orokorra egingo dute Edurkan, 19:30etik aurrera. Interesatuei joateko deia egin diete antolatzaileek.

Berastegi. Otsailaren 3an podologoaren bisita izango da Berastegiko Gaztainondo elkartean. Interesatuek izena eman dezakete Gaztainondo bertan edota honako telefono zenbakian: 943 68 32 02.

Berrobi. Eskularen ikastaroa astelehenetan izango da 10:00etatik 12:00etara, otsailaren 5ean hasi eta abenduaren 10a arte. Ikastaroaren prezioa, berriz, 103 eurokoa izango da. Izen-ematea 943 68 32 94 telefono zenbakian egin behar da hilaren 23a baino lehen.

Ibarra. Jose Mari Garmendia misiolariak eta Izaskun Azurmendi kooperanteak hitzaldia eskainiko dute 20:00etatik aurrera, Ibarako plazako parrokiako lokalean.

Villabona. Aizkardi mendi elkarteak Artzamendira (Lapurdi) antolatu du irteera igande honetarako. Izen-ematea, elkartean edo 943 694458 telefonoan (Joxan) eman daiteke.

ZINEMA

Alegia. *Despues de media noche* filma ikusgai izango da, Alegiko Gaztebtxean, 21:30etik aurrera. Italiako Davide Ferraria da zuzendaria.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Ollarreaaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
 Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112. (Leitza eta Aresoko bitanleentzat).

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agur kale erakusketari

TOLOSA ▶ 'Kantu isila' erakusketaren eskulturak kendu dituzte jada; erakusketa bera izango du gaur hizpide Koldobika Jauregik, 19:30ean Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Urte erdiz Tolosako paisaiaren parte izan ostean, Koldobika Jauregi eskulturgile alkizarraren *Kantu isila* izeneko kale erakusketako eskulturak kentzeari ekin diote. Herenegun hasi ziren eta atzo kendu zituzten gainontze-koak, bat izan ezik.

Izan ere, joan den urtean Tolosa 750 Fundazioak martxan jarri zuen Koldobika Jauregiren kale erakusketaren baitan zeuden eskulturen arteko inkestaxoa, non herritarrek gus-tukoena aukeratu baitzuten. Bada, emaitzak plazaratu zituzten eta Geltoki kalea eta San Frantzisko arteko gurutz-bidean kokaturik zegoen eskultura izan zen bozkatuena, botoen %18,7arekin. Eskultura jartzeko lekuari dagokionez, Zabalarreta parkea izan zen boto gehien jaso zituena, %23,8arekin. Orotara 347 boto jaso zituzten. Hala ere, azkenik Udalak udaletxearen parean zegoen eskultura aukeratzea erabaki du.

Hasiera batean, Jauregiren erakusketa irailera arte bakarrik mantentzea espero bazuten ere, azkenean, 750 Urteurrenoko Fundazioak artelanak hiriko kaleetan joan den urte amaierara arte mantentzea erabaki zuen, «erakusketa hau urteurrenaren ospakizunen ardatz garrantzitsuenetako bat izan baitzen».



Koldobika Jauregi, atzo goizean, San Frantzisko ibiltokiko eskultura kentzen ari ziren unean. I. GARCIA

tar guztiei zuzendua, gaur 19:30etik aurrera Tolosako Kultur Etxean. Hala, Tolosan behin-betiko geratuko den eskulturaren aukeraketa dela eta, Koldobika Jauregik Tolosa-

ren urteurrenerako egindako *Kantu Isila* erakusketa izango du hizpide.

Halaber, bihar, 13:00etatik aurrera Zabalarreta parkean betirako geratuko den eskultu-

ra jarriko dute. Artelan hau Euskal Eskultura Garaikidearen Mostra Iraunkorreko beste eskulturrei gehituko zaiela jakinarazi dute. Eskulturgilea bera bertan izango da.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Maddi Pagola Iriarte (Tolosa). Gaur 7 urte. Zorionak etxekoan partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...